

EKONOMIA-KRISIAREN AURREAN UDAL EKINTZA PLANA GAUZATZEKO GIDA

Realizado por:

Orrialdea:1/47



AURKIBIDEA

1 UDAL EKONOMIA-FINANTZA DIAGNOSTIKOARI BURUZKO IKERKETA.....	4
1.1 Aurrekariak	4
1.2 Atal honen helburuak.....	5
1.3 Aurretiazko metodologia oharrak.....	5
1.3.1 Ikuspegi banaketa	5
1.3.2- Jatorriarekiko aipamena eta funtsen aplikazioa	6
1.3.3- Xehetasun maila = erantsia	6
1.3.4- Ekonomia-Finantza Planaren baitan Udal Zerbitzu desberdinen berrikustea (sarrera + gastuak).....	6
1.3.5- Azterketaren denbora esparrua	7
1.4 Edukia	7
1.4.1- Egoerarekiko Diagnostikoa	7
1.4.2- Epe ertainerako Ekonomia-Finantza Plana	9
2.- JARDUERAREN OSOKO OLDOZMENA:	12
2.1- Aurrea hartzea erreakzioarekiko aukera gisa.....	12
2.2- Etorkizunerako prospektiba	13
2.2.1- Ikuskatzea	13
2.2.2- Preaktibitatea	13
2.2.3- Proaktibitatea	14
3.- UDAL ESTRATEGIA KRISIAREN AURREAN.....	15
3.1.- Gakoak	16
3.2.- Helburuak	16
3.3.- Ekintzak	16
3.3.1.- Ekonomia izaeradunak	16
3.3.2.- Politika eraginkorrak	18
3.4- Adierazleak.....	19
3.5.- Eragile erabakigarrien Zaintza	19
4. NEURRIEN BEHIN BEHINEKO PROPOSAMENA.....	20
4.1 Ekonomia izaeradunak	20
4.1.1.- Diru-sarrera/gastuari buruzko ERAGINKORTASUNEZKO neurriak	20
4.1.2- Neurri PRO-AKTIBOAK	33
4.2.- Politika eraginkorrak	36
4.2.1.- Gizarte mailan.....	36

Realizado por:

Orrialdea:2/47

4.2.2.- Ekonomia jardueran.....	39
4.2.3- Etxebizitza	40
4.2.4.- Hirigintzaren eta herri lanen esparruetan.	41
4.2.6.- TICen Garapena	44
4.2.7.- Energiakoak	44
4.2.8.- Landa ingurunea	45
5.- EKINTZA – MOTEN KATALOGO ADIERAZKORRA.....	46

1 UDAL EKONOMIA-FINANTZA DIAGNOSTIKOARI BURUZKO IKERKETA

1.1 Aurrekariak

Egungo krisi egoerak hain sakontasun eta handitasuna izango dituela uste da ze, gure gizarte-ekonomia inguruan atzeraldi garai luzea ekarri dezakeela ohartarazten da

Udalek ez dira horretatik at izango, eta alderantziz ondorengo arlo biotan nabarmen jasango dutela aurreikusten da:

- Finantza orekarekiko zailtasuna, diru sarrerak murriztu eta ohiko gastua gehitzerakoan.
- Finantzatu beharreko beharrian berriak sortzea

Hala ere, EUDELtik, Administrazio Publikoen artean, Udalek eragile eraginkor izan daitezela proposatzen da, krisialdi horren aurkako neurriak azaltzeko, horretarako dituzten tresnak gogoan hartuz eta krisialdiak berak udalen finantza orekan eraso nabarmena sorraraziko duena ahaztu gabe.

Horregatik beti, eta are gehiago udal kontuetan krisiaren eragin nabarmena izango den inguruabarra izanez, hurrengoak izatea gomendatzen da:

- Udal-finantzen egoeraren DIAGNOSTIKO bat.
- Epe ertainerako eragiten dien algarri eta magnitude guztiak baitaratu ditzan EKONOMIA-FINANTZA PLANA.

Aipatutako tresna horiek Udalei euren egoera hobetzen lagunduko die, hurrengo honegatik:

- Tartean diren eragileei udalak bere planak azaldu (herritarrak, gizarte-elkarteak, alderdi politikoak, enpresak, etab.)
- Egitura-finantziatorik eman dezaketen Erakundeekin negoziatzea (Foru Aldundiekin, Jaurlaritzarekin, Finantza Erakundeekin, etab.)
- UDAL EKINTZA PLANEN laguntzaile liratekeenekin aldeaniztun akordioak burutu
- Behar besteko aurretiaz erabakiak hartu.

1.2 Atal honen helburuak

Atal honek Udalek hurrengo hiru analisi mailatan ekonomia-finantza tresna bezala erabiltzeko gida izatea du helburu:

- Udal-egoerarekiko diagnostikoa egiteko, horretara abiapuntua antzematea ahalbidetuz.
- UDAL EKINTZA PLANAREN neurrien hautaketaren erabaki eta optimizaziorako, eta horretan honako hau egin:
 - EKONOMIA esparruan EKINTZA posibleak aurkeztu eta garatzeari ekin.
 - Ekintza horiek helburu izateko neurriak ezarri eta eurentzako finantziazioa lortu.
 - Krisiaren eraso leundu.
- Funtsen aplikazioaren eta jatorrien arteko beharrezko finantza-orekaren sostengua denboran zehar ikusi ahal izateko, epealdi luze baten neurriak hurrengoetan nola eragiten duten aztertuz:
 - Kontu publikoetan
 - Aurrekontu-orekaren beharrezko mantenua.

1.3 Aurretiatzko metodologia oharrak

1.3.1 Ikuspegi banaketa

UDAL EKINTZA PLANAREN ikuspegiak profil desberdineko ekimenak aurreikusten ditu:

- **Aldezpen-ekimenak**, baliabideen gastua eta optimizazioa eusteko, horretara baliabide urriak eta geroago eta beherakorrak “beharrezko” gastuetan erabiltzeko, soiltasun eta euspen gehigarriko ahaleaginean, udal inguruan egitasmo berri garrantzitsuak finantzatzeko soberakin/gainerakoak sorrarazten saiatuz.
- **Ekimen pro-aktiboak**, udalerrri mailako esparru sozioekonomikoan eragin handiagoa luketen neurrietan ahalegin handiagoak eginez hurrengoetara begira:
 - Toki ekimenaren sustapena
 - Udalerrian inbertsio estrategikoak.
 - Gizarte ekimen eraberritua.

Realizado por:

Orrialdea: 5/47

Jakina denez, ekimen bi horiek, azterketan eta zehaztapenean, batzuetan bateratzen zailak izaten dira, profil bi horiek jarrera kontrajarriak eskatzen dituztelako.

Horregatik proposatzen da bai diagnostikoan bai erabakiak hartzerakoan ikuspegi bi horiek banatzen saiatzea, horretara aurkakotasunetan ez erortzeko eta beraz emaitza-prozesua optimizatzeko.

1.3.2- Jatorriarekiko aipamena eta funtsen aplikazioa

Udal Ekintza Planaren neurrien gauzatze-prozesuan, euretariko bakoitzaren eraso hurrengo aipatzen direnetan gogoan hartzea gomendagarria da:

- Dagozkien helburu zehatzak
- Udalak dituen funtsen aurkako finantziarioa, bereziki era isolatuan sorrarazten dituen funtsen jatorri eta aplikazioa aintzat hartuz

1.3.3- Xehetasun maila = erantsia

Tresnak bere exekuzioan eragina izan dezan eta epe ertainera estimazioak egingo direnez urteroko aurrekontuak duten xehetasun maila gorenarekin egin beharrean, diru sarrerentzako kontzeptu mailan egitea (hiru zenbaki mailako desglosea) eta gastuentzako ekonomia-sailkapenari dagokionez eta Egitasmo funtzionalari dagokionez sailkapen funtzionala kontzeptu (hiru zenbaki mailako desglosea) mailan egitea gomendatzen da.

1.3.4- Ekonomia-Finantza Planaren baitan Udal Zerbitzu desberdinen berrikustea (sarrera + gastuak)

Aurreko atalarekin lotuta, eskaini izandako zerbitzuetarako ekonomia-finantzari buruzko informazioa lortzea funtsezkoa den neurri berean, diru-sarreraren zein gastuen jokabidearena lortzea ere ez da gutxiago (inguruabar hori diagnostikoak islatuko da, oinarria bera izango baita EKONOMIA-FINANTZA PLANA egiterakoan)

Realizado por:

Orrialdea: 6/47

1.3.5- Azterketaren denbora esparrua

- urtera (legegintzaldiaren amaiera).
- 5 urtera.

1.4 Edukia

1.4.1- Egoerarekiko Diagnostikoa

UDAL EKINTZA PLANAREN egikaritzan, hobetze EKIMENAK antzeman ahal izateko, ahalik eta xehetasunik gorenarekin Ohiko Eragiketa eta Kapitalari dagozkien epigrafe desberdinak hartzea gomendatzen da, udal aurrekontua aintzat hartu eta aurreko ekitaldietako hiru aurrekontuekin, hurrengo puntuak zehaztekoan, alderatuz

- Egoeraren diagnostikoa egin.
- Diru sarrera gehitu eta gastua eusteko atal posibleak.

Eskuragarri izan beharreko informazioa 2008ko aurrekontua eta 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietako ekitaldi-amaieraren estimazioak eta 2008an udaletako magnitude makrorik garrantzitsuenen bilakaera eta hurrengo urteetarako aukerak ere. Kasu horretan zenbat eta xehetasun maila gorenarekin lan egin, hobe, baina neurririk gainditu gabe.

Xehetasun puntua, aurrekontuarengan eragin erlatibo zein absolutuagatik esanguratsuenak izan daitezkeen kontzeptu (sarrera) eta partidei (gastuak) buruzko garrantzi erlatiboaren azterketak zehaztuko du.

Lan hori hola azaldu daiteke:

- Diru-sarrera eta gastuen gehikuntzak aztertzeke bulego lan bezala.
- Diru-sarreraren eta gastu-eustearen zehaztapenean Udaletxeko Sail bakoitzeko arduradunen parte hartzea, ekonomia-ataleko arduradunen eta beste sail batzuetako arduradunen arteko beharrezko elkarren arteko elkarrekintza izanez.

Realizado por:

Orrialdea: 7/47


Diagnostikorako metodologia hauxe izango da:

- Alde batetik urteen joanean Gastu-partiden bilakaera orokorra zein izan den aztertu, lortutako exekuzio eta egikaritza mailak zeintzuk izan diren aintzat hartzeaz batera
- Sarrera-kontzeptuen bilakaera aztertu, lortutako exekuzio eta egikaritza mailak aintzat hartuz.
- Udalaren hartzekodunen eta zordunen azterketa egin (bilakaera, joera, zioak, etab...)
- Diruzaintzako soberakinen bilakaera eta beraz egiten den erabilera
- Eurei dagozkien adierazle eta bilakaera:
 - Aurrezte gortina eta garbia
 - Zorren maila
 - Sarreren, Gastuen eta Inbertsioen ratioak. Diagnostikoa funtsezkoa izango da egungo ekonomia-finantza egoerari eta kokapen hori lortu izan arte eman den garapenari buruzko ondorioak atera ahal izateko.

Laburbilduta, diagnostikoa aurrekontuekiko kitapenaren interbentzio-txostenetan aztertutako arlo guztiez osatuta egongo da, baina bere ondoriorik garrantzitsuena krisiaren aurrean udalak dituen ekonomia-finantza arloko indar-guneak eta ahulguneak zeintzuk diren ezartzea izango da.

Diagnostikorako metodologia honetan datza:

Metodología hurbilpena



Realizado por:

Orrialdea: 8/47

1.4.2- Epe ertainerako Ekonomia-Finantza Plana.

- **Oinarrizko egitura**

EKONOMIA-FINANTZA PLANAK hurrengoak izatea komenigarria da:

- Udal-ekintza guztiaren orotariko ikuspegia.
- Ekonomia-finantza ikuspegitik egindako udalaren zerbitzu desberdinei buruzko banakatze analitikoa.
- Zehaztutako zerbitzu bakoitzaren baitako egitasmo-ekintza, ahal den neurrian.

Ikuspuntu praktiko batetik, Udalen aurrekontu-egituratik EKONOMIA-FINANTZA PLANA egin zitekeen, aurrekontuaren baitan liratekeen partida eta kontzepturik esanguratsuenetan sakontzeari ekinez:

	2005	2006	2007	2008	2009
DIRU-SARRERAK					
I ZUZENEO ZERGAK					
II ZEHARKAKO ZERGAK					
III TASA ETA BESTE SARRERA BATZUK					
IV OHIKO TRANSFERENTZIAK					
V ONDARE-SARRERAK					
GASTUAK					
I LANGILEGOAREN GASTUAK					
II ZERBITZU ETA OHIKO ONDASUNAK					
III FINANTZA GASTUAK					
IV OHIKO TRANSFERENTZIAK					
OHIKO ERAGIKETAK					
DIRU-SARRERAK					
VI INBERTSIO ERREALEN INORENTZEA					
VII KAPITAL TRANSFERENTZIAK					
VIII FINANTZA AKTIBOAK					
IX FINANTZA PASIBOAK					
GASTUAK					
VI INBERTSIO ERREALAK					
VII KAPITAL TRANSFERENTZIAK					
VIII FINANTZA AKTIBOAK					
IX FINANTZA PASIBOAK					
KAPITAL ERAGIKETAK					
GARBIA					

Realizado por:

Orrialdea: 9/47

Behin behineko funtsen bilakaera ikusi ahal izateko behar adinako baina ez larregizko banakatzea gomendatzen da.

Ekonomia-Finantza Planak xehetasun nahiko izan behar du, hurrengo atalburuen atalik garrantzitsuenak aintzat hartu ditzan FUNTSEN JATORRIA eta APLIKAZIOA formatua edukiz: DIRU-SARRERAK (zergak, tasak, transferentziak, etab.) eta Zerbitzuekin zerikusia duten GASTUEK (langileria, azpi-kontratazioa...), ONDAREARI atxikitako gaiekikoak (errenta, inbertsio-gabetzeak, gastuak, mantenua...), eta FINANZIAZIO (“zorduntzeagatiko” sarrera/irteerak etab.) eta INBERTSIOekikoak.

Azken ohar bezala EKONOMIA-FINANTZA PLAN horrek :

- Udalak aintzat hartu behar ditu bere sozietateek eta elkartutako entitateak. Hala ere, toki erakundearen beraren eta, hala dagokionean, bere menpean izan daitezkeen entitateen indar-guneak eta ahulguneak antzemateko komenigarria litzateke aparteko azterketa bat egitea.
- Gogoan hartu beharreko datuei buruz Funtzen Jatorri eta Aplikazio lauki hori azken 2005/2006/2007 urteotako aurrekontuen datuekin eta 2008ko aurrekontuari dagokion itxierarekiko estimazioz eta 2009ko aurrezpenaz ere osatu beharko litzateke.
- Xehetasun mailak, bistaratu eta erabakiak hartzeko (kontzeptuaren edo atalaren arabera), nahiko zabalak izan behar du, baina behar bestean erantsia, etorkizunerako egin beharreko estimazioa askoz ere kongruenteagoa izan dadin
- Eta urrezko arau bezala, Udalaren finantza jasangarritasuna erakutsi beharra daukagu, berezitasunez UDAL EKINTZA PLANAREN baitan egitea erabaki ditzakegun ekintzen eransketekin.
- **Aintzat hartu beharreko aldagarriak**
PLANAREN atal desberdinei eragiten dien aldagarri jakin batzuk gogoan izan beharko dira.
Hara hemen:
 - Funtsen sarrera eta irteera epigrafe desberdinei nola eragiten dienarekiko ekuazioa.

- Aldagarri horien ustezko joera edo dagozkien eszenatoki desberdinak. Adibidez, berankortasunarekiko eszenatoki handiago bat.

PLANAREN aldagarri bezala, emaitzetan eragina izan dezaketelako, diru-sarrera, gastu, inbertsio eta finantzaketa eta bere bilakaerarekiko, 2008ko urte-ekitaldiari dagozkien datuei arreta berezia eskainiz, atal desberdin guztiei eragin diezaieketenek aintzat hartu behar dira .

Aldagarri horietako adibide batzuk, nagusienetatik zehatzagoenetara arte sailkatuta, honako hauek izan daitezke:

KPI	Hondakinak	Ibilgetua
Orokorra Soldatak Zerga Oinarriak	RSU RICIAS Arriskutsuak	Balio kontablea Urteak Mantenu gastuak
Biztanleria Adina Generoa Jatorria (etorkinak) Errentak	Enpresa Kopurua Altak-Baiak Tamaina Sektoreak EJZrekiko Datuak	Sektore garapena Udalerriko sektoreak Enpresa kopurua.
Motordun ibilgailuak Mota Zenbakia Parkina	Ekintza inmobiliarioa Zorua m2tan Saldutako m2 Sustatutako m2	Interes mota Euribor Kreditu Ofizialaren
Lur zorua Familiarrentzako Industrialak Zerbitzuak Dotaziozkoa	Zerbitzu-erabiltzaileak Kirolak Hezkuntzazkoak Hondakinak	Askotarik Alojera-diru sarrerak Berankortasun indizea

- **Ereduaren emaitzak**

Emaitza gisa, EKONOMIA-FINANTZA PLANAK honakoetan izan behar litzateke:

- Funtsen Jatorri eta Aplikazioari buruzko laukia.
- Edozein eratako Hipotesi-euskarria erantsiz.
- Etorkizunerako eszenatokiak azaltzeko prestatua, hipotesia berriak erantsiz, neurrien eragina, etab.

- **Ereduaren funtzionaltasuna**

EKONOMIA-FINANTZA PLANA behin eskura izanez gero, hurrengoetarako erabili beharko da:

- Udalaren egungo finantza-egoera ikusteko, honako hauek zehaztuz:
 - Udaletako ahulgune direnak.
 - Diru-sarrera eta gastuen joera.
- Krisiak udal-finantzei nola eragingo dienarekiko estimazioa egin.
- Zorroztasunerako plan baten barruan, atal bakoitzeko gastuaren euspen-helburuak modu erlatiboan azaldu.
- UDAL EKINTZA PLANean ezarritako neurrien arabera Ekonomia - Finantza Planaren bilakaera ikusi, eta horren ondorio bezala, hala balegokio behintzat, aldez aurretik ezarritako helburuak lortze aldera eta edonola ere FINANTZA ALORREAN JASANGARRIA izatearekiko baldintza etengabe mantenduz, ekintzak areagotu.

2.- JARDUERAREN OSOKO OLDOZMENA:

2.1- Aurrea hartzea erreakzioarekiko aukera gisa

Ekonomia-krisiaren inguru honetan Udalerrian etorkizunera begira emango direna uste dugun aldaketetarako prestatzen jakitea beharrezkoa da eta ez dugu jada aldaketak eman arte erreakzionatzen hasteko zertan itxarotera bakarrik mugatu beharrik.

Argi dagoena hauxe da: behingoan izango dugun etorkizuna iragan hurbila edo egungo egoeraren erabat desberdina izango dela.

Orain egin daitekeen arriskurik handiena itxarotea edo erabakiak hartzea saihestuz horretara aritzeari datxezkion arriskuekin jardutea da.

Ekonomia-krisia bere ondorio guztiekin agertu dakigun aurretik denborari probetxua atera beharra diogu. Behin krisiak jo gaitzanean erreaktibitatea izango da nagusi.

Lehendabizi, aurrea hartzeko denbora, esplorazioari eta osoko oldozmenari dagokiona da. Aldaketa posible eta nahigarriaren prospektiba da.

Realizado por:

Orrialdea: 12/47

Behin esplorazioa egin ondoren, aurrea hartzeak ekintzaren prestaketa bi zatitan egitea ahalbidetzen digu:

- **1. Zatia:** Itxaroten diren aldaketetara prestatzeko estrategia posibleei buruzko aukerak gauzatu eta balioztatu (aurrekintza).
- **2. Zatia:** Nahi diren aldaketak sorraraztea (aldeko ekintza).

2.2- Etorkizunerako prospektiba

Benetako mundua uste duguna baino askoz korapilatsuagoa da eta bertan lehenengo begirada baten ikus daitezkeenak baino askoz faktore gehiagok parte hartzen dute. Baina benetan garrantzitsua dena faktore horiek guztiak etengabeko elkarreraginean dabiltzala ikustea da, eta horrek guztiak kaos sentipena sorrarazten digu..

Edonolako hurbilpen lineal barru-barrutik akastuta dago eta ulermenerako gure ahalmenak eredu prospektibo edo dinamika-sistemetan oinarritutako metodologia aurreratuen bitartez bakarrik gaindi dezake muga hori.

Udalei Ekonomia-Krisiaren aurrean euren Udal Ekintzarako Planerako baliagarri izan dakien oldozmen metodizatua egitea ahalbidetu diezaieketen oinarri jakin batzuen ekarpena egiten saiatuko gara eskema bezala ondoren azaltzen den 1 Eranskinean atxikitako metodologiaren bitartez.

2.2.1- Ikuskatzea

Lehendabiziko une baten udal lantalde bat eratzten da eta bere egitekoa ekonomia-krisialdian garrantzia berezia izan dezaketen faktore edo aldagarriak identifikatzea litzateke. Identifikazio hori I Eranskinean atxikitzen diren galdesorta batzuen bitartez gauzatzen da.

Behin aldagarriak edo faktoreak identifikatu ondoren, horiek Udal ikuspegi batetik birkodifikatu egiten dira, eta beraz, gerora gauzatuko den sistema-azterketara egokitutakoa.

2.2.2- Preaktibitatea

Udalak bere Plana prestatzeko egiten duen alde aurreko ekintzan datza, eta aldagarri eragile eta menpekori garrantzitsuenak agerrarazteko helburua duen egitura-azterketan gauzatzen

Realizado por:

Orrialdea: 13/47

den azterketa prospektibo on batekin hasten da eta beraz, kasu honetan sistema ekonomikoaren bilakaerari dagozkion funtsezko aldagarriak.

Egitura-azterketa egiaztatutako eskarmentudun aktore eta adituz osatutako lantalde batek egindakoa izango da, baina horrek ez du kanpo "aholkulari"en parte hartzea baztertzen.

Jarraibidearen hiru zati desberdinak honako hauek dira:

1 Zatia: Aldagarrien zerrenda (ikuskapen aldian egina izan da)

2 Zatia: Aldagarrien arteko harremanen deskribapena

3 Zatia: MICMA Cez egindako aldagarri gakoaren identifikazioa

2.2.3- Proaktibitatea

Egindako egitura-azterketaren oinarrian aurkeztu izan daitezkeen helburuak lortzeko aktore desberdin guztiekin jardutea dakar. Horretarako, "aktoreen jokoa" izeneko azterketa-metodoa ezartzen da, bere helburua aktoreen arteko indar-harremanak baloratzea ahalbidetzeaz gain elkartutako helburu eta jarrera kopuru jakin batzuekiko eurei dagozkien desadostasunak eta konbergentziak aztertzean datza. Horretara, aktore horiekin guztiekin aldeko eragile izatea lortzen da, istiluekiko aurreikuspenarako aliantza-politika bat abiarazteko laguntza erraztuz.

Aldi horretarako hurrengo hiru zatiak dituen MACTOR metodoaren ezarpena gomendatzen da:

1 Zatia: "Aktoreen estrategiak" laukia egin.

2 Zatia: Erronka estrategikoak eta elkartutako helburuak identifikatu.

3 Zatia: Aktore bakoitza estrategia-helburuen arabera ipini (jarreraren matrizea)

4 Zatia: Aktore bakoitzarentzat bere helburuen lehentasunak lehenetsi (balioztatutako jarrera- matrizea).

5 Zatia: Aktoreen indar-harremanak balioztatu

6 Zatia: Indarren harremanak aktoreen arteko desadostasunen eta bateratasunen azterketan txertatu.

7 Zatia: Etorkizunerako galdera gakoak eta estrategia gomendioak aurkeztu.

3.- UDAL ESTRATEGIA KRISIAREN AURREAN

Udal arloko ekonomia-finantza ikerketa-diagnostikoa egin izan ondoren, eta gure aldetik prospektiboa izatea gomendatzen dugun ahal den neurriko osoko oldozmen bat egin izan ondoren, oinarrizko maila baten besterik ez bada ere “Ekonomia-Krisiaren aurreko Udal Estrategia” egituratzea komenigarria da.

Bertan identifikatu beharrekoak hauek dira:

- Gure udal estrategiarekiko gako direnak.
- 2009-2011 denboraldirako gutxienezkotzat ezartzen ditugun helburuak (ez dago soberan epe luzeago bat jartzea).
- Egin nahi ditugun oinarrizko ekintzak, hurrengoak bereiziz:
 - ekonomia-finantza arloko ekintzak.
 - Politika eraginkorrei buruzko ekintzak.
- Udalerrria/krisiaren aurkako Plana sistemaren bilakaera neurtzea ahalbidetu diezaguten emaitza adierazleak.
- Sistemarekiko funtsezko aldagarriei buruzko zaintza sistema (era nabarmenean eragiten diguten eta eurretan ezelan eragiterik ez dauzkagun aldagarriak).

Hobe da ezaugarri horietako strategiaren bat izatea, oinarrizkoa izan arren, hemen aipatzen ditugun neurriak izan gabe bat-batean edo intuizioz jardutea baino, horretara sistemak izan lezakeen bilakaeraren arabera, sistema bera kontrolatzea ahalbidetuko ligukeelako. Alor hau azpimarratu egin nahi dugu, kulturaz ekintzarako jarrera dugunaren jakitun garelako, baina gure eraginkortasuna eta eragingarritasuna nabarmen hobetzen lagunduko ligukeen oldozmen sistemakoarekiko gabezia dugula antzematen dugu eta beraz, gabezia hori zerbitzatzen dugun Gizarte Zibilaren eta egungo garaiari dagokion erronka delakoan gaude.

3.1.- Gakoak

- **Egitura-azterketatik ondorioztatzen direnak.**

Atal prospektiboan aztertutako aldagarrietatik, eta zehatzago esatea aldera “Egitura-Azterketatik” egin izan zitezkeen kasuan, Udalerria/Krisiaren aurkako Plana sistemaren estrategiaren iparra izango diren funtsezko gakoak lortuko dira.

- **Zerbitzu publikoen eskaintzarako berebiziko esparruak.**

Zerbitzu publikoen eskaintzak euren kudeaketarako esparru eraginkorrak behar dituzte, eta horrek udal intereseko zerbitzu publikoen eskaintzarako kudeaketaren eskaintzan, eskualdatzean edota Mankomunitate edo Partzuergoak eratzean kasu baten baino gehiagotan beste udalerrri edo beste erakunde maila batzuekin negoziazioak ekar ditzake.

- **Egindako Ekonomia-Finantza Ikerketa-Diagnostikoa.**

3.2.- Helburuak

Izan ditzakegun datuen eta gakoaren arabera, ezarritako epealdirako helburuak zehaztea komeni da.

- 2009.
- 2010.
- 2011.
- Epe ertain eta luzera.

3.3.- Ekintzak

3.3.1.- Ekonomia izaeradunak

- **DIRU-SARRERA/GASTUAN ERAGINKORTASUNEZKO NEURRIAK**

Kasu honetan, neurria, diru-sarrerak gehitu eta gastuak murrizteko aukerak bilatu beharrean datza:

Realizado por:

Orrialdea: 16/47



- Herstura plan baten iragarpena.
- Diru-sarreraren sorkuntzaren euspena.
- Udal Ondarearen Kudeaketa eta Administrazioa.
- Udal finantza-ahalmena areagotzea.
- Inbertsioak hautatzea.
- Zaintza eta jarraipena: “neurtzen ez dena hobetzen ez denez” adierazleak eta helburuak ezarri beharra dago.

- **NEURRI PRO-AKTIBOAK**

- Inbertsio pribatuaren dinamizazio eta bultzada.
- Inbertsio estrategikoak.
- Merkatuari eta herritarrei zeinu egokiak igorri:
 - Udalari dagokion fiskalitatearen egokitzapena.

Egokitzapen hori udalari dagozkion eskuduntzen baitan egingo da krisiaren aurkako toki garapenaren helburu berrien arabera. Adibide gisa:

- Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga:
 - Murrizketa.
 - Izozketa.
 - Krisiak jotako multzoei hobariak eskaini.
- Eraikuntzen, Instalazioen eta Lanen gaineko Zerga:
 - Babes ofizialeko etxebizitzak egin ditzaten eragile pribatuei hobariak.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga:
 - 45 urtetik gorakoak, gazte eta emakumeak bezalako laneratze zaila duten pertsonak kontratatzen dituztenei hobariak.

Realizado por:

Orrialdea: 17/47



- Udal erosketekiko politikak.

Politika horrek toki enplegua sortzea objektibatu beharra du (lehiakortasun askea ?).

- Kaltetuenen multzoentzako zuzeneko laguntza-neurriak.

3.3.2.- Politika eraginkorrak

- Gizarte mailan
 - Laneratzen laguntzeko Plana.
 - Prestakuntzarako sustapen neurriak.
 - Gizarte sorospena.
 - Gaztedia.
 - Hirugarren adina.
 - Hautzaroa.
 - Aisialdia.
 - Kirola.
 - Kultura.
- Polizia eta Herri-zaintza
- Ekonomia jarduerari dagokionez
 - Tokiko merkataritza sustatzeko neurriak.
 - Ekintzaileen sustapenerako neurriak.
 - Kultura eta turismoa sustatzeko neurriak.
- Etxebizitza soziala
 - Eraikuntza.
 - Birgaikuntza (lokalena, behe solairuak, etab etxebizitza sozial bezala).
 - Etxebizitzaren alogera eta erosketa.

- Hirigintzari eta herri lanei dagokienez
 - Udal inbertsio publikoarekiko dinamizazio eta bultzada bideratu.
- Garraio eta mugikortasunarekiko gaietan
- TICen garapena
- Energia bidezkoak
- Landa Ingurunea

3.4- Adierazleak

Egiturarekiko azterketa egin bada adierazleen ezarpenerako oinarri izateko egoki izan ditzakegun eragin gutxiko baina oso menpetasunezko aldagarri batzuk izango ditugu, horretara gure Krisiaren aurkako Planetik eratorritako ekintzen bilakaera neurtzea ahalbidetzeaz gain itemarengan zalantzagabe eragingo duten beste gainerako faktoreak ere neurtzea ahalbidetuz. Adierazle horiek helburuekin eta oinarrizko ekintzekin bat egon daitezela komeni da.

Lortutako emaitzek, bideratutako ekintza edo politikak berretsi edo desbideratzeak zuzentzea ahalbidetuko digute, edo hala balegokio, estrategia berrikustearen beharrianaz ohartarazi gaitzakete.

3.5.- Eragile erabakigarrien Zaintza

Egitura Azterketan antzemandako eragile erabakigarriak, bere kasuan, edo bestela dena delako metodoarengatik erabakigarritzat bezala konfiguratu daitezkeenak monitorizatu egin behar dira, zeren aldatu ahal izateko euren jarduterik ez daukagun arren, gakoekiko euren larregizko eraginak, helburu-ekintzek eta emaitzak, aldaketarik txikienaren aurrean erantzun ahal izaterik izan dezagun euren gainean egotea eskatzen digute. Eskualdekako edo maila orokorrean agian egin daitezkeen zaintza-sistemak komenigarriak dira, EUDEL bera udalerrien emaitzok sozializatu eta sustatzeko Udalen eskura egonik.

4. NEURRIEN BEHIN BEHINEKO PROPOSAMENA

4.1 Ekonomia izaeradunak

4.1.1.- Diru-sarrera/gastuari buruzko ERAGINKORTASUNEZKO neurriak

Neurri-sorta horien helbururik garrantzitsuena diru-sarrerak gehitzeko eta gastuak murrizteko aukerak aurkeztu izatean datza.

Gomendagarriak liratekeen ekintza-ildoak hurrengoak dira:

- **Zorroztasun plan baten iragarpena.**

Ekintza-ildo honen helburua ez da zorroztasun plan bat abiaraztea bakarrik, ezagutaraztera ematea baino, hau da, Udala buru izanik krisia egoera berriaren kontzientzia eta zorroztasunarekiko egoera nagusia lortzea.

Horretarako, hauxe ezarri eta iragarri beharra izango da:

- Atal desberdinetako arduradunetz eta ekonomia atalaren arduradunak ere parte hartuz osatutako sailen arteko lanerako taldea.
- Parte hartzeko eredu batekin.
- Eta krisiari aurre egiteko 2009rako aurrekontu zorrotza, 3 urterako helburu duen Plana eginaz.

Zorroztasunerako Plan honen barruan hurrengo jarduera-ildo zehatzagoak azaltzen dira:

- **2009ko aurrekontuen helburu direnen birdefinizio eta aurrekontu-estimazioen zuzenketa.**
- **Gastu-murrizketen azterketarako litezkeen atalak.**
 - Sailkako gastu-murrizketarako plangintza nagusia.
 - Udal zerbitzuen azterketa egin:
 - a) Udal zerbitzuen emakidei buruzko kontratuen berrikuspena egin.
 - b) Mantenurako kontratuak:

Kontratu motaren arabera, kopuru txikikoak, epe luzera kontratatzea zaila da, eta horrek hornitzaileek eskainitako prezioa murriztea ahalbidetuko du.

- Merkatura jo ahalik eta kontraturik onuragarrienak lortu ahal izateko asmotan, prezioa/zerbitzua erlazioa ezarrita.

c) Gutxieneko bertaratze uneetako ordutegiak eta zerbitzuak murriztu.

Aipatutako murrizketa hori ordu tarte desberdinetan eman izandako zerbitzuetan lortutako errentagarritasuna eta kostuaren azterketa egin ondoren egikaritu da.

➤ Udal enpresentzako zorrozatasun Plana.

o **Gastu-murrizketa.**

Esparru honetarako hurrengo jarduerak aurkezten dira:

➤ Udalaren zerbitzuen inguruko azterketaren ondoren gastu atalei dagokien berformulazioa.

Azterketa berrikuspenon bitartez egingo da:

- Sailkako helburuak.
- Sail horien esplotazio maila murrizteari ekinaz.

➤ Erabat beharrezko ez diren gastuetan murrizketa helburua aurkeztu.

Egungo eta etorkizuneko errealitateari egokitzuz sailka helburu jakin batzuk zehaztean datza, hain zuzen:

- Atal estrategikoak aintzat hartuz, aurreko egitasmoarekiko %X jakin baten kostuen murrizketaren helburuak dagozkien sailletara.
- Dagozkien esplotazio mailak murriztu: ekintzen eskaintzatik eratorri daitezkeen gastuaren euspena (bai ekimenei dagokien kopuruan edo eurei dagozkien aurrekontuetan ere).
- Egokigarritzat bezala joko dira, besteak beste, jaietako gastuak, propagandarakoak, publizitaterakoak, hitzaldiak, kultura arloko ekintzak, kirol jarduerakoak, dietak, eta beste antzerakoak izan daitezkeenak.
- Politika Eraginkorretan zehaztu daitezkeen gizarte gastuei erantzuteko bideratu daitezkeen aurrekontuetako ataletako gastuak ez dira murrizgarri izango.

- Erosketetarako zentral bat sortzea.
- Administrazio Publikoaren beraren jardunaren kostuak optimizatzea, bere eragingarritasuna hobetuz.
Baliabideen gastu txikiagoz eragingarritasuna gehitzea helburu duen Administrazio aparatuen eragingarritasunaren hobekuntzarako barne-lana proposatzen da. Adibide bat "FACTOR 4: erdiarekin ekoizpena bidertu" izenda daiteke
- BEZ zerga-kostuaren minimizazioa:
Zerga-sistema osatzen duten zerga-multzoaren baitan, toki entitateentzako eraginik nabarmenena duen zerga, kostuari dagokionez eta inolako zalantzarik gabe, BEZa da, Toki Entitateek zerga horrekiko, kasurik gehienetan behintzat, zergaren azken kontsumitzaile izaera dutelako eta beraz zergaren ondorioa kostu bezala jasan beharrean aurkitzen dira.
Toki Entitateek BEZari dagokion kostuaren bereganatzea, dagozkien erosketetan eta zerbitzuetan jasan beharra dutela, zergaren araubidezko arauak ematen dien konfiguraziotik eratorzen den arren, Toki Entitate bakoitzarengandik BEZarekiko berak duen egoera aztertu beharko da, eta zergaz bere eragingarritasuna hobetzeko neurriak hartzearen posibilitatea ere, adierazpen bezala besterik ez bada ere hurrengo izendatzen diren gaiak azaltzeari ekinaz:
 - BEZaren araudiak zergari atxikita dauden eragiketa bezala kalifikatzen dituen Toki Erakundeek eurei dagokien jardunaren garapenean gauzatu ditzaketen ekimenak burutzeko era.
 - Enpresa publiko, pribatu misto edo, orotara merkataritza enpresen bitartez garatutako edota garatzekotan diren jarduerak.
 - Aipatutako zerga horren ondorioetarako jarduera ekonomiakoak, osorik edo zatika, garatuko diren (Zinemak, Antzerkiak, Museoak, Kultura Aretoak, Kiroldegiak,...) bezalako azpiegituretan egindako inbertsioei buruzko optimizazioa.
 - Zergaren gainean toki erakundeak kudeatutako, sustatutako edo garatutako hirigintza ekimenek duten eragina zehaztu, xedetzat udal jabegopeko ondasunak dituzten ala ez aintzat hartu gabe.

○ **Udalerrri bakoitzak dituen egoera aintzat hartuta soldaten eta dirusarien izozketa.**

Aurkeztutako Zorroztasun Planaren iragarpenaren barruan dirusarien eta lansarien izozketa baitaratzen da, hain zuzen ere :

- Erabateko edo zatikako arduraldidun Alkate eta zinegotzien lansariak.
- Kargudun hautatuei dagozkien dietak.
- Konfiantzadun kargudunen lansariak.
- Udal talde politikoei diru-ordainak eman.

○ **Langileriaren gastuen zaintza.**

- Lan jardunaren kontrola eta aparte egindako orduenak ere.
- Udal langileria arlo estrategiko batzuetan baino ez da gehituko.
- Diruz lagundutako gastuekin aldi baterako kontratazioa erabiltzea aztertu :
- Adibide zehatza INEMaren erabilera, lan jakin batzuk (mantenua, zaintza, garbiketa, etab.) egin ditzaketen aldi-baterako langileak kontratatzeke pertsonalaren kostua diruz laguntzen baitu. Ondorio horietarako, erabakiak hartu aurretik ezarri daitezkeen negoziazio kolektiboaren esparrua gogoan hartu beharra dago.

Horretara, toki administrazioarentzako kostu txikia izanez langabezia dauden pertsonen okupazioa sustatzen da. Lan jardunaren kontrola eta aparte egindako orduenak ere.

○ **Udalerrriko energia eragingarritasun eta aurrezte-neurriak:**

- Energia ikusketak (EEErekin Hitzarmena).
- Energia aurrezpenerako inbertsioak bultzatu.
 - Diruz lagunduta egon daitezela.
 - Energia aurrezteko gertu dauden eraikinetan hobekuntza eta mantenua (beira bikoizdun leihoak izan, etab.)

- Aldaketa operatiboen bitartez kontsumoa hobetzea.
 - Aldaketa operatibo horiek zorroztasunetik abituko dira. Adibidez:
 - Gertakizun berezien inguruko argiteria (gabonak, jaiak...).
 - Eraikin publikoetan izaten den hozberorik gorenak eta gutxienak.
 - Udaletxeko bulegoetako argiteria.
 - Argiteria piztu / itzaltzeko ordutegi orokorrak.
 - Argiteriatik eratorritako unitate-kontsumoa murriztu (kontsumo gutxiko argiak eta tenporizazio-kontrolak, semaforoak, etab.).
- **Zerbitzu-eskaintzatik eratorritako udalaren eskumenpekoak ez diren ez beharrezko izendatutako gastuak arrazionalizatu eta diru-sarrerak eskumena dagokien beste erakunde batzuetatik lortu.**

- **Diru-sarreraren sorkuntzaren euspena.**

Atal honetan aurreikusitakoa:

- **Zerga Berrikustea.**

- **Udal Ordenantzen berrikustea.**

Ohikoa izaten da udalerrriaren esparruan toki-zergak arautzen dituzten zerga-ordenantzak unean uneko ekonomia-abagunearen arabera inolako egokitze prozesurik jasan ez egitea. Orain dugun abagunea zeregin horretarako berebizikoa da.

- **Eremu dinamizatailea (Zerga politika).**

Zerga desberdinen araudi erregulatzailerak, zerga-hobari, onura edo salbuespen jakin batzuk ezartzen dituela adierazi beharra dago eta horretarako ezarritako urkilaren baitan horien gauzatze edo egokitzea ez da dagokien Udalen eskumena baino besterik, Foru Aldundiaren laguntasunik zertan beharrik ez dutela. Ezarri daitezkeen hautazko zerga onurak udaletxearen aurrekontuen kontura besterik ez direla gogoan hartu beharra dago.

Horregatik, beharrezkoa da zerga bakoitzaren arau erregulatzailerak eskaintako aukerak ezagutzea, zerga bakoitzaren erregulatzailerak diren zerga-ordenantzetan aipatutako neurrietariko batzuk txertatzearen egokitasuna aurkeztearen ondorioetarako.

Adierazpen gisa besterik ez, Udalak bere zerga-eskuduntzen esparruan bere udal ekonomiaren zerga-politika dinamizatzailea ezartzearen ondorioetarako Udalaren aukera desberdinekiko aipamena besterik ez egite asmoz hara hemen jardura zehatz batzuekiko adibideak

a) OHZ (42/89 Foru Araua Araban; 9/89 Foru Araua Bizkaian eta 12/89 Foru Araua Gipuzkoan).

- Hirigintzarekiko eta, higiezinerekiko sustapenarekiko enpresen jardunaren xede izan daitezkeenetarako zergaren osoko kuotan ehuneko 50 eta 90 bitarteko hobaria izango da. Gehienezko iraupena: hiru zerga-aldi.
- Eraikuntza berridun babes publikoko etxebizitzetarako eta eurei atxikitako garaje eta trastelekuetarako ere hiru zerga-aldiko epealdian zehar (luzagarriak) Zergaren osoko kuotan % 50etako hobaria
- Nekazarien eta lurraren ustiaketa komunitariorako kooperatiben landa-ondasunen osoko kuotaren 100eko 95eko hobaria .
- Familia ugarien alde zergaren osoko kuotaren 100eko 90era arteko hobaria eta «Etxebizitza Hutsen Programa» izenekoaren eremuan emakida-xede izan daitezen ondasun higiezinentzako zergaren osoko kuotaren 100eko 50aren hobaria ezarriko da.
- Eguzkitik etorritako energiaren ustiaketa termiko edo elektrikorako sistemak ondasun higiezinetan ezarri izan dituztenentzako Zergaren osoko kuotaren 100eko 50era arteko hobaria izango da.
- Etxebizitzarako erabilera besterik ez duten ondasun higiezinertarako Zergaren osoko kuotaren 100eko 99ra arteko hobaria, baldin eta etxebizitzak subjektu pasiboaren ohiko egoitza izaera izateaz gain aipatutako etxebizitza horretan bizi daitezen familiako kide guztien artean urtero 18.000 euro baino gutxiagoko errenta jasotzen badute. (Arabako Lurralde Historikoan soilik ezargarri).
- Behin betiko kalifikazioa eman izan ondoren babes publikodun etxebizitzei zergari dagokion osoko kuotaren 100eko 50era arteko hobaria.

b) EJZ (43/89 Foru Araua Araban; 2/92 Foru Araua Bizkaian eta 1/93 Foru Araua Gipuzkoan).

- Kooperatibentzako kuotaren 100eko 95era arteko hobaria.
- Ordenantzak une bakoitzean ezarri dezakeen eta egoera berrira egokitzearen ondorioetarako urtero berrikusia izan daitekeen etekin negatibodun jarduerak dituztenentzako dagokien kuotaren 100eko 50era arteko hobaria izan ahalko dute.
- Ekonomia Jardueraren gaineko Zergari dagokion bigarren zerga-aldiaren amaieraren ondorengo 5 urteetako epealdian zehar beste titulartasun baten menpe egin izan ez diren Ekonomia Jardueren hasierarako dagokion kuotaren 100eko 50era arteko hobaria .
- Kontratu mugagabedun langile-zerrendaren batzbesteko gorakadagatik kuotaren 100eko 50era arteko hobaria.
- Dagokien kuotaren 100eko 50era arteko hobaria hurrengoentzako izango da:
 - a) Kogenerazio sistemez edo energia berriztagarriak ustiatzeko instalazioek erabiliz energia ustiatu edo erabili dezatenentzako.
 - b) Udal mugartearen jendeztatuenak diren tokietatik urruti dauden instalazio edo lokaletan industria jarduerak dituztenentzako.
 - c) Energia kontsumoa gutxitzeko xede duen bere langileentzako garraio-plana ezarri duenarentzako
- Ingurunearen kudeaketa sistemen egiaztagiria izan dezatenentzako dagokion kuotaren 100eko 50era arteko hobaria. (Bizkaiko Lurralde Historikoan soilik ezargarri).

c) TMIZ (44/89 Foru Araua Araban; 7/88 Foru Araua Bizkaian eta 14/89 Foru Araua Gipuzkoan).

- Ingurumenean karburantearen errekontzari dagokion eragina dela eta, Ibilgailuak erretzen duen karburante motaren arabera 100eko 75era arteko hobaria.

Realizado por:

Orrialdea: 26/47

- Ibilgailuen motorren xehetasunen eta ingurumenarekiko horrek duen eraginaren arabera 100eko 75era arteko hobaria.
- Ordenantza fiskaletan Zergaren kuotan, (kuota hori gehituta zein gehitu gabe egon daiteke), 100eko 95era arteko hobaria, hurrengo baldintzapeanetan (Arabako Lurralde Historikoan soilik ezargarri):
 - Bost eserleku edo gehiagoko ibilgailua izatea.
 - Ibilgailuaren titularra familia ugaritsu baten kide izatea.

d) EILZ (45/89 Foru Araua Araban; 10/89 Foru Araua Bizkaian eta 15/89 Foru Araua Gipuzkoan).

- Eguzki energiaren aprobetxamendu termikorako edo elektrikorako sistemak ezarri daitezten eraikuntzen aldeko 100eko 95era arteko hobaria.
- Etxebizitza sozialaren kalifikazioa duten etxebizitzaren aldeko 100eko 95era arteko hobaria. (Bizkaiko Lurralde Historikoan soilik ezargarri).
- Azpiegiturei dagozkienetan inbertsio pribatuen sustapenerako planei uztartutako eraikuntzen alde 100eko 50era arteko hobaria.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren eraikuntzagatik 100eko 50era arteko hobaria.
- Ezinduen irisgarritasun eta bizigarritasunerako baldintzen aldekoak izan daitezkeen eraikuntzengatik 100eko 50era arteko hobaria.
- Gizarte, kultura, historiko-artistikoak edo enpleguaren sustapenerako egoerak ematearren udal-baliagarritasun edo interes berezidun gisa aitortutako eraikuntzentzako 100eko 90era arteko hobaria.
- Dagokion eraikuntza, instalazio edo lanarekiko udal baimena eman izateagatik tasa kontzeptuz subjektu pasiboak ordaindutako kopuruagatik edota ordainduko denagatik zergaren hobaritutako kuotaren edota osoko kuotaren kenkari fiskala.

Realizado por:

Orrialdea: 27/47

e) Zabaltze Baimenagatiko Tasa

Negozio berriak zabaltzea sustatu izatearen helburuz, tasari dagokion kuota murriztu eta zerga horrekiko interesik gabeko geroratzea ahalbidetu.

➤ Diru-bilketako eremua

Toki Ogasunaren esparruko araudian aurreikusita egonik zuzenbide publikokoak diren diru-sarreraren inguru murriztaile baten zerga bilketa gehitzeko gai liratekeen neurriak hartu izatearen aukera aztertu egin behar da, baldin eta neurri horiek udalaren zerga-politikaren baitan sustatutakoak izan daitezkeen dinamizaziorako neurriekin gainjarri ez daitezkeen bitartean.

Egon dauden aukeren artean, horien aplikazio praktikoa gehienetan Zergaren kudeaketa-ahalmena Tokiko Erakundeak bereganatu duen ala ez duenaren menpean izaten denez, jarduera-adibide zehatz batzuk aipatzen dira :

a) OHZ

Karga moten modulazioa (Hiri Ondasunentzako %3ra arte eta landa ondasunentzako %1,5era arte Bizkaian, Hiri Ondasunentzako %1,5 eta landa ondasunentzako %1,1era arte Araban, eta motaren arabera Hiri Ondasunentzako 1000eko 4a edo 1000eko 6a eta landa ondasunentzako %1,1era arte Gipuzkoan).

Arabak ezaugarri bereziak dituzten ondasun higiezinak %1,3ra arte kargatzea ahalbidetzen du.

b) EJZ

- Udalaren kuota neurtzeko edo modulatzeko egoerekiko indizeak edo aldaketarako-koefizienteen ezarpena.
- Aukerako neurketa-koefizientearen ezarpena.

c) TMIZ

Ibilgailuen mota bakoitzerako berariazkotasunez eta/edo izaera orokorrez zergaren kuota neurtu edo modulatzeko koefizientearen ezarpena.

d) EILZ

Karga motaren ezarpena gehienez ere %5ekoa izanez.

e) HLBGGZ

Arabako eta Bizkaiko Lurraldeen kasuetan gehienez ere %30eko karga motaren ezarpena, eta Gipuzkoan %10a, edozein kasutan, edo Bizkaian, egozgarri diren gutxieneko balioen erabilera hautetsi izatearekiko kasuetan: eta hiri lurrari dagokion balioen gaineko urteroko ehunekorik gorenak eskualdatzaileak lurra bere eskuan eduki zezakeen denboraldiaren arabera.

o **Berankortasuna gutxitu eta zergei dagokien kudeaketa hobetu**

- Udalak bereak dituen eskuduntzak bereganatu, berezitasunez ikuskatzearekikoak.

Berankortasuna gutxitzeko eta zergei dagokien kudeaketa hobetzeko Udalarenak bereak diren eskuduntza jakin batzuk indartzea proposatzen da, berezitasunez, ikuskatzearekikoak eta nahitaezko-dirubilketarekikoak, eta hala dagokionean, eskuordetzan eman direnen berreskuratzea ere baloratuz.

Ekonomia-krisiaren testuinguruan, eta alor inmobiliarioan berariazko eraginez, ondorio zuzen bezala, toki-tributuetatik eratorritako udalarenak bereak diren zuzenbide publikoko diru-sarreraren murrizketa, batez ere, sorrarazten du (hirigintza-baimenagatik tasak, transakzioen murrizketaren ondorio bezala HLBGG Zergen diru-sarreraren murrizketagatik, E.I.L.Z.,...)

Beraz, abagune ezin hobea da udalak bereak dituen ordainarazpen, kudeaketa, kitatze, ikuskatze eta diru-bilketarako egikaritzea-eskuduntzak bereganatuz Toki Ogasunen Foru Arauak eskainitako aukerak aztertzeke, aipatutako eskuduntzen, guztien edo euretariko

batzuen, egikaritzza sarritan dagokion Foru Aldundiarekin egindako hitzarmenaren bitartez eskuordetu egiten zaielako.

Toki-Erakundetik toki-zergei buruzko gorago adierazitako ahalmenen garapena bere gain hartzeko aukera aztertzearen ondorioetarako korrelazioan jarri behar dira:

- Egun estaldurarik ematen ez zaien zergapeko egitateen ezagutzarako sarbidea ahalbidetzerakoan udalak berak ikuskatzerako eta diru-bilketarako ahalmenak bere gain hartu izateak dakarren diru-bilketaren gehikuntzak “berankortasuna” murriztu eta zergei dagokien kudeaketa hobetzea ahalbidetzen du.
- Ahalmen berriak udalak bere gain hartzeko erabili beharrekoak dituen baliabideen kostuaren gehikuntza, udalaren beraren baliabideak direla (udalaren kutxa kostuaz arduratzen delako) edo aipatutako zerbitzu horiek eskaintzek dituzten espezializatutako entitate pribatuei kostu horren azpi-kontrataziotik eratorritakoak direla.
- **Kanpoko dirulaguntza-iturriekiko bilaketa (Estatua, EB).**
Horretarako, Udal egitasmoetarako Autonomia Erkidegoko, Estatuko eta Europar Funtseko diru-laguntzen katalogo bat egitea proposatzen da .
- **Diru-sarrerak areagotzeko neurriak.**
 - Tasen eta zerbitzuen kostuaren arteko harremana berrikusi.
 - Zergapeko-egitate berriak erantsi.
Kosturen bat duten eta ordaintzen ez diren zerbitzuengatiko tasak, herri prezioak etab. ezarri.
- **Udal Ondarearen kudeatze eta administrazioa**
Diru-sarreretan eta gastuan Eragingarritasunezko Neurrien baitako hirugarren ildo bezala Udal Ondarearen kudeatze eta administrazioa proposatzen da, eta zehatzago :
 - **Inbentarioaren baitan besterengarri diren aktiboak edo diru-sarrerak kudea ditzaketenek identifikatu .**
Zerrendatik abiatuta aktibo horien alogera edo salmentari ekiten zaio.

- **Ondareari dagokion kostua murriztu.**
 - Esplotazioari buruzko planak (zabaltze orduak murriztuz).
 - Mantenerako planak (gutxienekoa bakarrik)
- **Finantza ahalmenarekiko gehikuntza**
 - **Finantza publikoen jasagarritasuna.**
 - Gastua, benetan lortuko dena uste den diru-sarreretara murriztu.
 - Defizit kontrolatua eta onartua Ekonomia-Finantza Planaren baitan.
 - **Aurrekontuaren finantzaketaren hobekuntza.**
 - Diruzaintzaren kudeaketa.
 - Eskualdaketen kudeaketa.
 - Defizitaren % kudeatu.
 - **Udalaren banketxe-finantzaketen fardel osoaren negoziazioa. (paketea lehiaketara atera)**
 - Kostuen murrizketa.
 - Kredituak bateratu.
 - Arazoak dituzten herritarrentzako agiango kontra-partidak lortu.

➤ **Inbertsioak Hautatu**

Gastuaren eta diru-sarreraren Finantza-neurrien baitan eta azken aurreko atal bezala Inbertsioen hautaketa bat gauzatzearekiko proposamena egiten da, ondoren adierazten diren irizpideen arabera:

- Ekintza pro-aktiboetan bildutako hautatze-irizpideak.
- Diru-laguntzak izan ditzatenek.
- Finantza-jasangarritasunarekiko irizpideak:
 - 1) Inbertsioa bera ordaindu ahal izan dadila.
 - 2) Geroztiko eragiketa-gastuak, sortu daitezkeen diru-sarreraren arabera nork bere gain hartzekoak izan daitezela.

- **Zaintza eta jarraipena**

Jardute-eremu horrek helburu eta adierazleak ezartzea behar du, “neurtzen ez dena hobetzerik ez dagoelako”.

- **Zaintzarako tresna eragingarriagoak ezartzea.**

Ildo horri jarraituz aurrekontuaren helburu bakoitzerako arduradunak ezarri beharko liriateke (gastuari eustea, diru-sarreraren gehikuntza, etab).
- **Aurrekontuaren zaintzarako eta jarraipenerako berriazko Batzorde baten ezarpena:**
 - Sailen edo Atalen artean.
 - Udal-taldearen artean.
- **Aurrekontuaren gastu eta diru-sarreraren zaintza zehatza, aurrekontuko partiden mugikortasunerako mekanismo bizkorrekin konbinatua, bai Sailen baitan bai Sailen artean ere.**

Baliabide urrien testuinguru baten arrazoibidezkoa dela dirudi nolabaiteko malgutasunez aipatutakoak kudeatzea, partiden arteko aldaketa ahalbidetuz. Hala ere, jarduera horrek aplikatu beharrekoak liriatekeen arauen eta aurrekontuen zaintzaren erabateko mendetasunean egon beharra dute

o **Administrazio-hobekuntzak.**

Administrazio-hobekuntzei dagozkien eremuan hurrengo ekintza zehatzak barneratzen dira:

- Leihatila bakarra.
- Arretarako 010 telefonoak.

Horrek kanpo kudeaketak arintzea dakar, dagozkien Siletara zuzenean jotzen delako.
- Oinarrizko egitasmodun lanetarako baimenak, horretara baimen-emanketen denbora gutxitzen duelako, dirua aurreztuz.
- Jarduera arautuak izan ez daitezenean irekierarako baimen automatikoak ematea.
- Bermeen itzultzeak arintzea.

Bermeei dagozkien epeen jarraipena egitea azaltzen da inolako eskaririk gabe itzuli ahal izateko.
- Kontratuetan behin behineko bermeen eraketarekiko lekapena.
- Izapide burokratikoaren ezabatzea eta administrazio elektronikoari bultzada eman.
- Birjartze errekursoaren ebazpenerako epeak mugatu.

o **Ikuskatzeak berrindartu**

Gai hau "Diru-sarrerekiko sorrerari eutsi" atalean garatu da.

- Zerga eta zuzenbide publikoko beste diru-sarrera batzuekiko gaitan Ikuskatze ekintzak sustatu.
- Ikuskatze orokorretarako Planak.
- Udalaren padroi desberdinei buruzko eguneratzeak bideratu.

4.1.2- Neurri PRO-AKTIBOAK

• **Inbertsio pribatuaren dinamizazio eta bultzadarako:**

Inbertsio pribatuaren dinamizazio eta bultzadara zuzendutako izaera proaktibodun ekonomia-neurri hauek berezitasunez hurrengo helburuetarako proposatzen dira:

Realizado por:

Orrialdea: 33/47

- **PYMESak finkatzeko.**

Kasu zehatz honetan, helburu diren jardueretarako tasen murriztea azaltzen da. Horretara, Udalerrian industrialdeen ezarpena bultzatu eta sustatzeari ekiten zaio.

- **Etxebizitza birgaikuntzaren sustapena.**

Sustapen hori OHZetan lanetarako zergetan kenketak eginaren bitartez, adibidez .

- **Finantza laguntzak.**

Horretarako proposatzen duguna: Hornitzaileentzako ordain-epeak laburtzea.

- Zergetan ordainen zatiketak egitea:

Errentaren aukera berrietara sortzapen- eta ordain-data desberdinak aurkezten dituzten toki-zergen ordaina egokitzearen helburuz, interesik sortu gabe, sortzapen aldizkako zergen zatikapenerako norbere aukerako sistema ezartzearen egokitasuna ezartzen da. Hori guztia banku-helbideratzera baldintzatuz gero, tributu desberdinen zorrak bateratu eta ezarritako egutegiaren arabera (hilero, hiruhilabetero, sei hilabetero edo urtero) dagokien ordaina periodifikatzea ere ahalbidetzen du

- **Inbertsio estrategikoak.**

Ondoren, inbertsio estrategiko posibleen adibide gisa, proposamen jakin zehatz batzuk biltzeari ekiten diogu:

- Udalarari dagozkion inbertsioen %Xa eta aurreikusitako ohiko gastuaren %Xa atxikitzeetik abiatuta gizarte-kontingentziarekiko funtsa.

Funts hori mailegu eta birfinantzatze beharrezan dauden taldeen berriazko programetara bideratuko da.

- Neurrietariko batzuei heldu ahal izateko masa kritikoa lortzeko helburuz udalaz gaindiko zerbitzu edo azpiegiturez hornitzeko berriazko aurrekontu zuzkidura.

- Landa-ingurunean edo mendi-ustiatzeetan edo parkeak, erretserbak, haize-parkeak edo eguzki-parkeak edo biomasa plantak, etab. bezalako natura baliabideen ondarea eskuratzearekin zerikusia duten inbertsioak

- **Herritarrei eta merkatuari zeinu egokiak igorri.**

Atal honetan proposatutako neurriak, Administrazio Publikoaren ereduzkotasunezko ekimenak ditugu, kasu honetan Udalari dagozkionak. Hau da, herritarren portaerak egungo krisialdia gogoan hartuz egokiagoak diren beste jarduera batzuetara eraman ahal izateko Toki Erakundeak duen ahalmena nabarmentzera bideratutakoak.

- **Udaleko fiskalitatearen egokitzapena.**

Kolektibitateari interesatzen ez zaizkion portaerei dagozkien zergapeko egitateak kargatzearen esanahian Udal fiskalitatea birbideratuz eta krisia aldietan desiratutakoak diren portaerei dagozkien zergapeko egitateak hobaritu edo bultzatzeari ekin.

- **Udal erosketei buruzko politika.**

Krisialdian udal planarekin lerrokatutako hobekuntzetara euren eskaintzak atxiki ditzaketen hornitzaileei abantaila lehiakorragoak eskainiz, kostuekiko bakarrik ez ezik, eraginkortasunean, enplegu sormenean edo udal mailako aberastasunean etab. ere bai.

- **Kaltetuen taldeentzako zuzeneko laguntza neurriak.**

- **Beharrian gorriko beharrianetarako funtsa sortu, sendi-premiadun arazoetarako diru-laguntzak ezarriz.**

- Finantza arazoak dituzten herritarren finantzetarako laguntza neurriak.
- Gizarte izaeradun berme ildoak.
- Micromaileguak.
- Kasu berezietan interesekiko hobariak.
- Arazoak dituzten herritarrentzako kontra-partidak lortzeko finantza erakundeekin finantza-hitzarmenak.

Hitzarmen mota horietarako unerik aproposena, adibide gisa, Udalaren banku finantzaren paketeari buruzko negoziazioa egin dadinean izango litzateke.

- **Udal erosketari buruzko politika.**

Krisialdian udal planarekin lerrokatutako hobekuntzetara euren eskaintzak atxiki ditzaketen hornitzaileei abantaila lehiakorragoak eskainiz, kostuekiko bakarrik ez ezik, eraginkortasunean, enplegu sormenean edo udal mailako aberastasunean etab. ere bai.

- **Oro har beherapenak/kenketak/hobariak/salbuespenak bideratu krisialdiak jotako taldeei, familia ugariari, guraso bakarreko familientzako, erretirodunentzako-nagusientzako, epe luzeko langabetuentzako, etab:**

- **Zergen kenketak.**

- **Kultura, kirol zerbitzuak, eta zakar-biltzeagatik tasei dagozkienetan beherapenak egin .**

- Garraioa.

- Eskola jantokirako eta liburuentzako diru-laguntzak.

- Haurtzarorako eta pertsona nagusientzako etxez etxeko laguntzak.

4.2.- Politika eraginkorrak

4.2.1.- Gizarte mailan

- **Laneratzeko Laguntzeko Plana (II Eranskinean agiria osorik eranstean da)**

- **Helburua:**

ENPLEGUGARRITASUNA gehitu, Laneratzeko Plangintza Pertsonalizatu baten bitartez.

Ez dago laneratzeko betea lortu izaterik Langabezian dagoen pertsonari Laguntza, Tutoretza eta Jarraipen zehatza jardun izatearen bitartez ez bada.

- **Berriazko Helburuak:**

- Bizitza burujabea garatu ahal izateko beharrezko ekonomia-, gizarte- edo pertsonal-baliabiderik ez luketen norbanakoen gizarteratze prozesuan lagundu.

- Laneratzearen azken helbururantz abiarazitako ekimenean langabetuari aholkua edo laguntza eman, udalaren atal desberdinen arteko koordinaziorako tresnak Optimizatu eta Elkarren artean eraginez jardunaz
 - Pertsona bakoitzaren beharrianen araberako orientazioa eman
 - Inguruko enpresekin lanaren inguruan bitartekari izan.
 - Laneratze Pertsonalizaturako Planaren definizio eta balantzea egitetik abiatuta, erabiltzaile diren pertsonak mobilizatu lan bilaketa eraginkor, sistematiko eta planifikatutakoa egiteko.
 - Udalerrian eta inguruetan diren lan-, heziketa- eta gizarte-baliabide guztiei buruzko informazioa eman.
 - Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Toki Garapen eta Enplegua, Etorकिनak, Emakumea etab. arloetan euskarri gisa jardun.
- **Xede diren taldeak:**
- Gazteak.
 - Langabetutako pertsonak.
 - 45etik gorakoak.
 - Emakumeak.
 - Genero indarkeriaren biktimak.
 - Gizarte kanporatze arriskuan dauden pertsonak.
 - Ezindutako pertsonak.
 - Etorकिनak.

o **Jarduerak:**

- Erabiltzailearekin.
- Udalerriko enpresa esparruarekin eta inguruarekin.
- Udal atalekin:
 - Gizarte Zerbitzuak.
 - Hezkuntza.
 - Etxebizitza.
 - Osasuna.
 - Enplegua eta Lanerako Prestakuntza.

o **Zatiak:**

- I Zatia: Ekintza planaren hedapena.
- II Zatia: Bezeroari arreta egitea.
- III Zatia: Gizarte eta lanerako orientazioa.
- IV Zatia: Gizarteratzeko ibilbideak sortzea.
- V Zatia: Gizarteratze heziketa.
- VI Zatia: Bezeroarenganako lan-bitartekotza.

o **Aurreikusitako Ekimenak**

- Enpleguaren Bilketarako Egitasmoa (EBE)
- Informatika alfabetatzerako Plana.
- Gizarte trebetasun eta Lan Heziketarako Tailerra.
- 45 urte igaro ondorengo enplegua.
- Etorkinei arreta.

- **Prestakuntzaren sustapenerako neurriak**

Udalaren Planean hartu daitezkeen gainerako neurrien osagarri bezala, orotara herritar guztien etenik gabeko prestakuntza suspertzea, eta era berezian krisialdian bazterkatuak izateko arriskuan diren taldeak, komeni da.

Neurri horiek foru-, erkidego- edo estatu-izaerako entitateek eta irakaskuntzako ikastetxe publiko zein pribatuk euren ziklo guztietan eskaini ditzatenenekiko zerbitzu propioak izan ez daitezenean egin beharko dira.

Udal bakoitzak herritarren prestakuntza sustatu behar du, krisialdia gainditu eta etorkizunean izango ditugun beharrezan erantzuteko etorkizunerako apustu bakarra jakintza denaren sinesmenean egonaz.

4.2.2.- Ekonomia jardueran

- **Tokiko merkataritzarekiko sustatze neurriak**

- **Irisgarritasunaren alde jardun.**

Lehenbiziko neurri egokia merkatarien elkarteekin euren beharrezan hobeto ulertzeko elkarrizketa erraza izatearekikoa dugu.

Euren elkarteratzea sustatu eta dagokien jarduna hobetzeko egokiak liratekeen ikerketak egitea komenigarria da.

Udalak, gainera, kostu gutxiko neurriak har ditzake baina merkataritzari laguntza esplizitua dakarkienak, besteak beste:

- Aparkalekuak.
- Herri garraioa.
- Irisgarritasuna.
- Zamaketa eta hustuketarako sistema egokia (logistika)

- **Ekintzaileen sustapenerako neurriak**

- **Ekintzaileei eta enplegu sortzaile diren enpresei laguntza.**

- Industria zoruan:
 - Administrazio tramiteak bizkortu.
 - SPRILURekin batera sustatu, etab.
- Enplegu aztarnategi berriak.
- Prestakuntzarako plan egokiak.
- Enpresa txiki eta ertainaren sorkuntza berrirako laguntzak.
- SPRIrekin egindako Hitzarmenen bitartez enpresa hazitegiak sortu
- Merkataritza Ganbararekin egindako Hitzarmenen bitartez laguntza eta tutela.

- **Turismorako eta Kulturaren sustapenerako neurriak**

Kultura- eta turismo-aktiboak balorean jartzean datza eta elkartutako zerbitzu eta atributu horiek komunikatzerakoan udalaren buruzagitza bereganatu izatean ere. Horretarako egokia izango litzateke, adibide bezala:

- Udal web orrian arreta egokia izatea.
- Komunikabideetan presentzia izatea, balore horiekin zerikusia duten ituei garrantzia emanaz. Ikusgaitasuna.
- Publizitate kanpainen egikaritzea.

4.2.3- Etxebizitza

- Etxebizitza politikak, bai eraikuntzaren ikuspegitik bai birgaikuntzaren ikuspegitik ere.
- Alogeran dauden etxebizitzaren sustapenerako Plana.
- Eraikuntza bioklimatikoarekiko bultzada horretarako berariazkotasunez egindako ordenantzen idazkuntza burutuz.

Eraikuntza bioklimatikoak bere berariazko kontzepzio eta energia-diseinuagatik etxebizitzaren mantenu eta esplotazio kostu txikiagoak ahalbidetzen ditu, erabiltzaileei krisialdiari era egokiagoan aurre egiten lagunduz

- Etxebizitza izateko finantza-laguntzarako ekintzak
 - Ordaintzeke dagoen kreditua erosi BOEra birkalifikatuz + alogera
 - Berme ildo jakin batez gizarte-garantia baten funtsa sortu
 - Atzera eskuratzeko eskubidearen ordeztu bermatu

- Jabeen Erkidegoei eta etxebizitzaren jabe direnei asistentzia-funtsa.
 - Gaiotan diren zerbitzuei buruzko informazioa.

4.2.4.- Hirigintzaren eta herri lanen esparruetan.

Udal inbertsio publikoaren dinamizazio eta bultzadari ekinean.

- **Udal inbertsio publikoaren dinamizazio eta bultzada**
 - **Lurzoruaren kudeaketa (Udalena, eta FAena eta E.J.rena bere lurraldean), izaera proaktibodun ekonomia neurriekin lerrokatutako industria- eta bizitegi-guneak garatzea sustatuz .**

 - **Krisialdiaren aurrean balio sortzaile den egiteke dagoen herri lana bizkortu.**

Bizkortze hori irizpide jakin batzuen arabera egingo da:

 - Enplegua sortu.
 - Behartsuagoak diren taldeei laguntza.
 - Finantza jasangarritasuna.
 - Hautatutako funtzioak: entzulekuak, liburutegiak, haurtzaindegiak, nagusien etxeak, birgaikuntza.

 - **Lurzoru publikoan alogerako udal etxebizitzaren sustapenerako Plana.**

- **Hirigintza-exekuzioan parte hartuz, gai horretan legediak ahalbidetzen dituen tresnak erabiliz**

- **Krisialdiak gelditutako promozioen bultzada eta hala balegokio berreskuratzeko parte hartzea, udal politikarekin lerrokatutako parametroen berdefinizio batetik ikusita.**

Adibidez, sustatzaileekin edo hartzekodun hipotekarioak direnekin (Banketxe eta Kutxek) etxebizitza kopurua birdefinitzeko akordioetara iristeaz gain etxebizitzok Udalarekin egindako hitzarmen bitartez tasatutako preziodun etxebizitzetan bihurtuz .

- **"Eragile Urbanizatzaille" sistema bultzatu.**

Horretarako, dagokion prozeduraren bitartez bere planeamenduan aurreikusitako exekuzio sistema aldatu egin beharko litzateke, horretara baliabideak eta ahalmen ekonomiko finantzarioa izan ditzaketen enpresek eragile urbanizatzaillearekiko zeregina bereganatu dezaten eta horretarako deitu daitezkeen lehiaketetara aurkeztuz.

- **"Eragile eraikitzaile figura bultzatu".**

Sormen berriko figura horrek figura hori birgaikuntzarako zein hirigintza exekuzioa geldituta egon dadin kasuetan eraikitzeko ere baliogarri da.

- **Izapidean edo izapidepean dauden Hirigintza planeamenduaren garapenerako txostenak bultzatu .**

Zepak, eraispen-hondakinak, eta eraikigarritasun gutxi eta azalera handiak behar dituztenak bezalako hondakin ez-arriskutsudun mota desberdineko birziklatzea bezalako biomasarako instalazioak, ingurumen-tratamendurako instalazioak.

- **Unean uneko aldakuntza doien bitartez, estandarrak ez diren jarduera ekonomikoen kokapenerako egokiak diren lurzoruak gaitu**

Biomasa instalazioak, zepak bezalako hondakin ez-arriskutsuen tratamendua, eraispen eta eraikigarritasunetik eratorritako hondakinen tratamendurako instalazioek bezalako Urbanistikoki ingurumenarekin eta energiarekin zerikusia duten ekonomia jardueretarako espazioak egokitzea komenigarria da.

4.2.5.- Garraio eta mugikortasun gaietan

- **Mugikortasunaren eskariaren kudeaketa**
 - Udalerrian dagoen mugikortasunarekiko eskariaren ikerketa egin.
 - Udal mugikortasunaren eskariaren kudeaketarako ildo edo gako batzuk diseinatu.
- **Egokiak diren neurriak zuzenean ezarri:**
 - Errepidezko bidaiarien ohiko garraio zerbitzua zuzenean kudeatzen baldin bada.
 - Bestela, zerbitzuaren ematen dutenen edo eskuduntza duten administrazioei eskari hori jakinarazi.
 - Beste alde batetik beste toki batzuetan abiarazten dabiltzan Car pooling (Ibilgailu partekatua) edo Car Sharing (Jabeantuntun ibilgailua.) bezalako ekimenak jartzea komeni da
- **Herri garraioa**
 - **Hirikoa**
 - Udal mugikortasunaren eskariari ahalik eta erarik eragingarrienean erantzun.
 - Egoki diren ibilbidez, geltokiz erreiez, bus kalez edo taxiz herri garraioaren arintasuna bultzatu
 - Mugikortasuna oinez edo txirrindua bezalako baliabide bigunen bitartez bultzatu.
 - Adeitasuna ere eskaini bidaiarien berariazko garraioari (ikastetxeak, fabrikak, etab...) denboren, intermodalitatearen etab.en arabera.
 - **Hiriartekoa**

Puntu honetan egokia litzateke garraioen foru administrazioarekin errepidezko bidaiarien ohiko zerbitzuari buruzko koordinazio eta lankidetzarik gorena sustatzea, benetako eskaria erraztuz eta eskari potentziala eskariaren beraren kudeaketarako egokitu daitezkeen bideen bitartez suspertuz.

- **Merkantzien logistika**

Dimensio nagusian zein txikian bere garrantzia du, eta berari dagokion harpena, banaketa, zamatzea eta hustuketarako neurriak hartzea komeni da.

- **Zamatze eta hustutzerako Ordenantzak**

Eskumendun Administrazioekin, Garraioaren Clusterra eta Logistika edo Logistikaren Euskal Institutua, izandako elkarlanaren bitartez helburu horretarako berariazko laguntzak lortu daitezke.

- **Bidegorriak**

Intermodalitateari jarraituz, bizikleta bezalako baliabide bigunen irisgarritasuna erraz dezaken ibilbide-plana exekutatu eta abiaraztea komeni da.

Kasu batzuetan bike sharing (partekatutako bizikleta) edo hartu-emate sistemak dituzten herri bizikletak eurei dagozkien sistemez ere abiarazi daitezke.

4.2.6.- TICen Garapena

- **Wi-Fi hiri-guneetan, eskoletan, ospitaletan, liburutegietan etab.**

4.2.7.- Energiakoak

- **Banatutako generazio**

- **Energia berriztagarri edo energia-balioztatzedun generazio txikiko guneak**

- Mini-eolikoak.
- Mini-hidraulikoak.
- Biomasa.
- Lurzoru ortuak.
- Hondakinen energia balioztatzea

- **Banaketa elektrikoa**

Bada udalik oraindik elektrizitatearen banaketarako jada bere sareak dituenik. Kasu batzuetan zeregin hori norbere gain hartzea komeni da.

Industria- eta bizitegi-garapenerako beharrezko den indar-horniketan ekimenok nork bere gain hartu beharra dago, enpresa banatzaileekin eta Eusko Jaurlaritzako Energia Zuzendaritzarekin banatze egokia egitea ziurtatuz. Ekimen horietan guztietan beharrezkoa da EEErekin batera jardutea.

- **District heating/cooling**

Bizitegi-garapen berriei dagokienez baliabideak optimizatu ahal izateko barrutiko hozte- eta beroketa-aukerak ikertu behar izango lituzkete baldin eta hotz/bero zentralizatua sortu eta bere banaketarako toki sistema bezala azpiegiturak izatearen ondorioetarako planeamendutik bertatik irtenbide horiek aintzakotzat hartu izango balira.

4.2.8.- Landa ingurunea

- **Lurzoruen bankua**

Kasu batzuetan lurzoru landatarren bankuak sortzeko abagune egokia da, edota beharrezkoak diren tresnen bitartez, desjabetzearekikoa bazterterik ez dela, hiri-garapena bideratzeko.

- **Nekazal ustiaketa-errenta-osaketarako politikak**

Nekazaritza esparruko ustiategi txikiari berez dagokion desekonomiak lurraldean bere presentziaren iraupena komunitateari eskaini diezaioketen eta Udalak erraztu ditzakeen zerbitzuen eskutik errenta osaketaren bitartez besterik etorriko ez denez landa eremuko familia-unitateen errenta osaketarako politikak diseinatzea komenigarria da.

- **Basoberritzea**

Basoberritzeak ingurunearen ikuspegitik desiragarri den ekonomia jarduera bezala kasu batzuetan udal politika eraginkorrak behar izan ditzake, horretarako bereziki eskuratutako lurzoruen edota basoberritzerako inbertsioen bitartez baso-leggedian bildutako partzuergoak eta antzerako formulak erabiliz.

5.- EKINTZA – MOTEN KATALOGO ADIERAZKORRA

Horretarako gaitutako web orrialdean, udalek “Ekintza – Moten Katalogo adierazgarria” izeneko paper-zorrora joaterik izango dute, bertan erabilgarri liratekeen artxiboetan ekonomia krisiari aurre egin ahal izateko udalek eurak abiarazitako esperientzia eta ekintzei buruzko informazioa bertan gordetzerik izango dutela.

Ondoren tresna horren erabilera errazteko helburuz sortu izan diren artxibo horien hurrenkera eta izena bilduko lirateke.

- 1) Ekonomia izaeradunak

- a. Diru-sarreran/Gastuan ERAGINKORTASUN neurriak.

- Zorroztasun plana iragarri
- Diru-sarrak sortzeari eutsi
- Udal-Ondarea kudeatu eta administratu.
- Udalaren finantza ahalmena areagotu.
- Inbertsioak hautatu
- Zaintza eta jarraipena

- b. Neurri PRO-AKTIBOAK

- Udal inbertsio publikoaren dinamizazio eta bultzada
- Inbertsio pribatuaren dinamizazio eta bultzada
- Inbertsio estrategikoak
- Udalaren fiskalitatearen egokitzapena.
- Udal erosketekiko politikak
- Kaltetuenak diren taldeentzako zuzeneko laguntzarako
- Ekonomia-finantza neurriak

2) Politika eraginkorrak

a. Gizarte mailan.

- Laneratzen laguntzeko Plana
- Prestakuntzaren sustapenerako neurriak
- Gizarte sorospena
- Gaztedia
- Hirugarren adina
- Hautzaroa
- Aisialdia
- Kirola
- Kultura

b. Politika eta Herri Babesa

c. Ekonomia jardueran.

- Tokiko merkataritzaren sustapen-neurriak
- Ekintzaileentzako sustapen-neurriak
- Kultura eta turismoaren sustapenerako neurriak
- Ekintzaile eta enplegua sortzen duten enpresentzako laguntzak

d. Etxebizitza

- Eraikuntza
- Birgaikuntza
- Alogera

e. Hirigintzaren eta herri lanen esparruan

f. Garraio eta mugikortasunarekiko gaietan

g. TICen garapena

h. Energiarekikoak

i. Landa-ingurumena

Realizado por:

Orrialdea: 47/47

